

Bilaketarako baliabideak



Sare sozialek, agian ezagutuko duzue arlo profesionalarekin zerikusia duen guztirako sare nagusia. Bai, LinkedIn esan nahi dugu. Jar ezazu zure profila sarean, interesatuko zaizkizun produktu sorta zabala aurkituko duzu, lan-eskaintzak eta enpresa-sare aktibo bat, kalitatezko Informazioa lortzeko. Bada Premium aukera bat, bertan hezkuntza-plataforma bat daukazuna, LinkedIn Learning, zure prestakuntza osatzeko prestakuntza-ibilbideei bide ematen diena: gaitasun digitalak, zure sormena sustatzea eta merkatuan beharrezkoak diren trebetasunetan eguneratuta egotea.

Eman denbora horri: zure datuak igo aurretik, prestatu ondo zer eduki nahi dituzun besteek zutaz ikus ditzaten.

Diseinatu ondo zure profila.

Eta dagoeneko barruan zaudenean, oinarritzko jokabide-arau hauek jarraitu:

- **Baliozko edukia partekatu.** Sare sozial guztietan garrantzitsuena edukia da, beraz, ez mugatu edukiak kontsumitzera, zuk ere ekoitzi behar dituzu. Landu ukitu pertsonal eta bereizlea zure sektore profesionalaren barruan.
- **Beste batzuk edukia argitaratzen dutenean, elkar eragin.** Berrio lehengo mezu bera, ez zaitez irakurtzera mugatu, erakutsi zeure burua. Profesionalki hazi egingo zara eta kontaktuak egingo dituzu. Parte hartu eztabaidetan eta izan koherentea zure diskurtsoan.
- **Identifikatu gehien interesatzen zaizkizun konexioak.** Beno, dagoen guztia ez zaizu interesatzen. Beraz, hasierako kontseiluak berriz ere: eman denbora honi: garrantzitsua da balio profesionala duten erabiltzaileak identifikatzea eta zaintzea.
- **Norbaitengana jotzen duzunean, pertsonalizatu.** Norbait interesatzen bazaizu, argi utzi pertsona horri zure kontaktu-sarean interesatzen zaizula eta zergatik, haren lande-bi-gaitasun nabarmenenak gorai patuz. Networking-a elikatzen du.

- **Zure idazkerak adeitsua eta zuzena izan behar du.** Ergelkeria dirudi esateak, baina hor doa... heziera oneko pertsona izatea lehentasun handienetako bat da testuinguru horretan, eta zuzena da baita, zure komunitateak dioenarekiko benetako interesa erakustea.
- **Zalantzak izanez gero, galdetu.** Zure kontaktuek lagundu ahal izanaren poza sentituko dute.

Hau dena networking egitea da, eta laburbilduz, garrantzitsuena:

zintzo jokatu zure esku-hartzeetan.

Sare honetan lana bilatzeko guneak aurkituko dituzu, hauek dira adibide batzuk, baina ez bakarrik:

[Infoempleo](#)

[Búsqueda activa](#)

[Universia empleo y prácticas](#)

[Expat Network](#)

Egin profil ona eta nabarmendu identifikatuko zaituzten gako-hitzak. Arretaz ikertu sarea.

Eta jakina, LinkedIn kanpo zure ohiko sareek era badute beren JOB nitxo txikia, ikertu han.

Eta horrek lehen aipatu dugun nortasun digitalera garamatza. Zertaz ari gara? Denok gaude sare sozialen baten, profilak irekitzen ditugu, edo fororen batean parte hartzen dugu, eta guri buruzko informazioa dago googlen aldiari egizu zuri buruz agertzen denaren buruzko bilaketa bat; pentsa ezazu zure balizko kontratatzaileek hori bera egingo dutela; beraz arreta jarri behar duzu horretan, eta zaindu datu desagokirik ez dagoela. Hau zaindu behar duzu. Aldian zaindu zure sare sozialak eta horietan irekian argitaratzen duzuna, pentsa ezazu edonork ikusi ahal duela, zuk aukeratu ikustea nahi duzuna.